

## EUSKARA ETA ELKARBIZITZA BATZORDEA

Elizalde Herri Eskolan, azken urteetan ikasleen artean euskararen erabilerak behera egin duenez, OOGn onartu da Euskara Batzordea sortzea, euskararen erabilerari eta prestigioari indarra emateko. Irakasleek eta gurasoek osatuko dute batzorde hau. Zuk ere, guraso zaren heinean, kezka hori buruan baduzu eta elkarlanean aritzeko gogoz bazaude, eman izena idazkaritzan. Gai honi heldu beharra dago. Ez al duzu uste? Bestalde, Bizikasi proiektuaren barruan (elkarbizitza bultzatu eta bermatzen duen Euskal Gobernuaren proiektua), guraso eta irakasle on artean batzorde bat eratu beharra dugu. Batzorde honen helburua eskolako elkarbizitza indartzeko ekintza ezberdinak bideratzea da. Parte hartu nahi al duzu? Hala izango balitz deitu idazkaritzara eta eman zuren izena. Eskerrik asko.



## EUSKARALDIA

Euskal Herriko hainbat herrietan euskaraldiari hasiera eman zaio, azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte, 11 egunez, euskara bakoitzak ahal duen lekutik bultzatuz, dakienak beti lehenengo hitza euskaraz eginez, ahobizi; eta ulertu, baina hitz egiten ez dakienak, belarria prest edukiz, belarriprest. Izen emateko, 16 urte baino gehiago eduki behar dira eta [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus) edo herriko plazako Fermiñene eraikinean.



## ETXEKO BAZKALTIARRAK

Lerro hauetatik gogorarazi nahi dizuegu, etxean bazkaltzen duten ikasleek, eguerdian eskola eremuan egoteko eskubide osoa dutela. Zerbait gertatuko balitzaike, gure laguntza jasoko dute, baina beti ere, kontutan izan, azken ardura gurasoena dela.



## COMISIÓN DE EUSKARA Y CONVIVENCIA

Durante los últimos años, hemos notado que el uso del euskara ha bajado en la escuela. Por ello, en el último OMR se decidió crear una comisión para reforzar el uso y devolver el prestigio al euskera. Esta comisión estará formada tanto por familias como por el profesorado. Si algún padre/madre tiene la misma preocupación y quiere colaborar puede llamar a secretaría y dar su nombre. Por otro lado, dentro del proyecto Bizikasi (fomenta la convivencia y promovido por el Gobierno Vasco), debemos formar una comisión entre familias y profesorado. El objetivo de dicha comisión es guiar diferentes actividades para favorecer la convivencia a nivel escolar. En caso de que alguien quiera colaborar, puede llamar a secretaría. Muchas gracias.



## EUSKARALDIA

En muchos pueblos del País Vasco, se le ha dado comienzo al euskaraldia. Desde el 23 de noviembre hasta el 3 de diciembre, durante 11 días, cada uno/una, desde donde puede, ayudará al euskara: el que pueda hablar, diciendo la primera palabra en euskara, ahobizi; y el/la que entienda, y no sepa hablar, teniendo el oído preparado, belarriprest. Para apuntarse, se deben tener más de 16 años e inscribirse en [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus) o en el edificio Fermiñene en la plaza del pueblo.



## ALUMNADO QUE COME EN CASA

Desde estas líneas, queremos recordar, que el alumnado que come en casa, tiene el derecho de estar en el espacio escolar al mediodía. En caso de que les ocurriese algo, tenemos el deber de ayudar, pero siempre debemos tener en cuenta, que en estos casos, la última responsabilidad es de las familias o tutores legales.




### **ESKOLAKO MATERIAL ETA IRTEERA KUOTA**

Bankuko artxiboarekin arazoak egon direnez, kuota ezin izan zen duela bi aste kobratu. Hori dela eta, kobraketa atzeratu da eta azaroaren 2an egingo da. Haur Hezkuntzaren kasuan 96 eurokoa izango da eta Lehen Hezkuntzaren kasuan 90 eurokoa. Kuota hau urtean behin bakarrik kobratzen da.



### **EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN FESTA**

Aurreko urriak 21ean, igandea, Euskal Eskola Publikoaren aldeko ekintza antolatu zen gure eskolan. Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkizuegu bertan parte hartu zenuten familia eta irakasleei; bestalde, gure web orrian txertatu dugu egun hartako bideoa ikusteko lotura.



Informazio gehiago:  
[www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es](http://www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es) eta  
[www.elizalde.eus](http://www.elizalde.eus)

### **CUOTA DE MATERIAL ESCOLAR Y EXCURSIÓN**

Hace dos semanas hubo problemas con el archivo del banco, por ello, no se pudo cobrar la cuota de material escolar. Esto ha hecho que el cobro se retrase hasta el día 2 de noviembre. En el caso de Educación Infantil será de 96 euros y en el caso de Educación Primaria será de 90 euros. Esta cuota se cobra sólo una vez al año.



### **FIESTA DE LA ESCUELA PÚBLICA VASCA**

El pasado 21 de octubre, domingo, se celebró un evento a favor de la Escuela Pública Vasca. Primero, queremos agradecer tanto a las familias como al profesorado que participó en esta actividad, y por otro lado, hemos puesto el link con el video de aquel día en nuestra página web.



Más información en: [www.elizalde.eus](http://www.elizalde.eus) y  
[www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es](http://www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es)

<https://www.youtube.com/watch?v=rTSzJ4ecdac&feature=youtu.be>